AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

5621

24/2012 DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua izendatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluak eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluak ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Juan María Aburto Rique jauna, haren merezimenduak eta dohainak kontuan izanik, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu izendatzen dut.

Herritar eta agintari guztiei agintzen diet bete ditzatela sailburuak legediaren araberako funtzioak baliatuz ematen dituen aginduak, betiere pertsona eta agintari legez dagokion begirunea erakutsita.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.